José Ignacio Asensio Bazterra jaunak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren presidentea bera, ematen du honako

D. José Ignacio Asensio Bazterra, Presidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, emite la siguiente

**AKORDIO PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE ACUERDO**

**2.3 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ZERBITZU ARAUDIA HASIERA BATEAN ONARTZEKO ERABAKIA.**

**2. 3 APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DE SERVICIOS DEL CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA.**

2010eko ekainaren 3an, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzarrak hiri hondakinen bideraketa sarearen kudeaketa aldatzeko proiektua behin betiko onartu zuen. Data berean, Kontsortzioaren eta GHK SAUren artean Esparru Hitzarmena onartu zen kudeaketa mandatua zehazteko. Esparru Hitzarmenaren artikuluek GHKri emandako mandatuaren edukia zehazten dute, baita azken horrek garatu beharreko jarduerak, obrak eta zerbitzuak ere, bai bere izenean bai Kontsortzioaren izenean, eta 1985eko apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetu zen.

Con fecha 3 de junio de 2010 por la Asamblea del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa se adoptó acuerdo de aprobación definitiva del proyecto de modificación del Reglamento de Servicios de gestión en alta de los R.U., en la misma fecha ,se acordó, la aprobación del Convenio Marco entre el propio Consorcio y GHK SAU, para la definición de la encomienda de gestión. El Convenio Marco, en su articulado, definía el contenido concreto de la encomienda a GHK, y las actividades, obras y servicios a desarrollar por ésta, en nombre propio y por cuenta del Consorcio, habiéndose tramitado conforme a lo previsto en el Art. 49de la ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local.

GHKri egin beharreko enkargu ezberdinak bete eta egikaritzeko parametroak zehazten ditu Esparru Hitzarmenak, baita horiek zein esparru ekonomikoan bete behar diren ere, hala, GHKren egonkortasuna bermatzeko. Zehazki, Esparru Hitzarmeneko lehenengo klausulak xedatutakoaren arabera, GHK-k esklusibotasuna izango du zerbitzua emateko orduan, hala, azpiegituren finantzaketa, egikaritzea eta amortizazioa ahalbidetzeko.

El Convenio Marco establece los parámetros de ejercicio y ejecución de los distintos encargos a realizar a GHK, así como el marco económico en que han de producirse para garantizar la estabilidad de GHK. De forma particular, la cláusula primera del Convenio Marco asegura la exclusividad de GHK en la prestación del servicio, a fin de posibilitar la financiación, ejecución y amortización de las infraestructuras.

Zerbitzu hori emateko orduan "Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren hiri hondakin solidoen transferentzia eta tratamendurako zerbitzu publikoaren kudeaketa-araua" betetzen da, arestian esan dugun moduan, Esparru Hitzarmena adostu zen data berean onartu zena, eta 2010eko ekainaren 30ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

La prestación de este servicio se lleva a cabo con arreglo al "Reglamento de gestión del servicio público de transferencia y tratamiento de residuos sólidos urbanos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa", aprobado, como se ha citado, en la misma fecha que el convenio marco y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de 30 de junio de 2010

Araudi horrek, besteak beste, zehazten du bere aplikazio esparruaren barne dauden zerbitzu guztiak (horien artean HKGZan ematen direnak) GHKri dagozkiola, zerbitzuen kudeaketa zuzena egitea bere ardura baita (zerbitzu araudiko 4. artikulua).

Dicho Reglamento establece, entre otros aspectos, que la gestión de todos los servicios incluidos en su ámbito de aplicación (entre ellos, los prestados en el CGRG) corresponde a GHK en tanto forma de gestión directa de los servicios (artículo 4 del Reglamento de servicio).

Kontsortzioko batzarrari proposatu zaio

Se ha presentado a la asamblea del

2008ko otsailaren 14ko erabakia eta 2010eko ekainaren 3ko Esparru Hitzarmena aldatzea, GHK-k egin beharreko jardueren egikaritzea ezabatuz; hau da, energia balorizazioko plantako, tratamendu mekaniko biologikoko plantako, zepen ontzerako plantako, biometanizazio plantako azpiegiturei lotutakoak eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren gainerakoak ere, justifikatuta geratu baita ezinezkoa dela jarduera horiek GHK SAUren bidez egin eta finantzatzea, aurrekontu egonkortasuneko helburuei erasan gabe.

Consorcio la propuesta de modificar el acuerdo de 14 de febrero de 2008, y el Convenio Marco de fecha 3 de Junio de 20190 suprimiendo la ejecución de actividades por GHK, vinculadas con las infraestructuras de la planta de valorización energética, planta de tratamiento mecánico biológico, planta de maduración de escorias, planta de biometanización y las demás que fuera necesario acometer para la prestación del servicio, una vez justificado que no es posible su ejecución y financiación a través de GHK SAU, sin incidir en los objetivos de estabilidad presupuestaria.

Planta horien eraikuntzak Kontsortzioaren edo haren sozietate instrumentalaren aurrekontuetan erasanik ez sortzea lortzeko, eredu berri bat ezarri da: bertan, obra publikoko esleipen kontratuen bidez, ekimen pribatuaren esku utziko da planta horien diseinua, finantzaketa, eraikuntza, mantentzea eta ustiapena.

De cara a conseguir el objetivo de que la construcción de las referidas plantas no tenga un impacto negativo en el presupuesto de Consorcio ni en el de su sociedad instrumental, se ha optado por la configuración de un modelo mediante el cual se atribuya a la iniciativa privada, el diseño, la financiación, la construcción, el mantenimiento y la operación de las plantas en virtud de contratos de concesión de obra pública

Eredu berri hori hondakinen tratamendurako zerbitzu publikoaren zeharkako kudeaketa tresnatzat jo daitezkeenez, egun indarrean dauden tresna juridikoak (bai ohikoak bai

En la medida en la que esta alternativa puede calificarse como instrumento de gestión indirecta del servicio público de tratamiento de residuos es necesario modificar, en igual medida, los

araudikoak) ere aldatu behar dira, GHK-k planta horien eraikuntza eta ustiapena bere gain ez hartzeak kudeaketa eran sorraraziko duen aldaketa jasota uzteko.

instrumentos jurídicos (convencionales y/normativos) actualmente en vigor para hacer constar el cambio en el modo de gestión que supone que GHK no vaya a asumir la construcción y operación de las plantas señaladas.

Hala ere, kontratuaren kontrolaren arduraduna izango da GHK, eta esleipendunak bere gain hartu behar dituen prestazioen betetze maila jagon eta ikuskatzeaz gain, Kontsortzioaren kontura doazen ordainketak egiteko betebeharra ere izango du. Ondorioz, sozietate horrek jarraituko du tratatutako hondakin tonako ezarritako tarifa kudeatzen eta likidatzen Mankomunitateen aurrean; eta beraz, kobrantzen kudeaketari dagokionez, orain arte aplikatu den tarifa sistema bere horretan mantenduko da.

Aun y todo GHK, actuará como responsable del control del contrato, asumiendo, además de la función de vigilancia y supervisión del grado de cumplimiento de las prestaciones que debe asumir el concesionario, la obligación de hacer frente a los pagos por cuenta del Consorcio. En consecuencia, seguirá siendo dicha sociedad la que siga desempeñando las funciones de gestión y liquidación de la tarifa fijada por tonelada de residuo tratado frente a las Mancomunidades, no alterándose el sistema tarifario que se viene aplicando hasta el momento, en lo que a la gestión de cobro se refiere.

Hori dela eta, Kontsortzioko Batzar Nagusiak GHKren bidezko kudeaketa zuzena aldatu eta horren ordez, arestian aipatutako azpiegituretarako esleipendun bidezko zeharkako kudeaketa ezartzeko, Araudiko artikulu hauek aldatzea PROPOSATU DA:

Por ello, una vez adoptado, por la Asamblea General del Consorcio el acuerdo por el que se cambia el modo de gestión de gestión directa por GHK a gestión indirecta a través de concesionario en lo que a las infraestructuras anteriormente relacionadas se refiere, SE PROPONE la modificación de los siguientes artículos

del Reglamento:

4. artikulua. Zerbitzua ematea (2. paragrafoa):

......

Kontsortzioko Batzar Nagusiak udalerrikako banaketari dagokion espedientea onartu baino lehen, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU sozietate anonimo unipertsonala sortu zen, Kontsortzioaren eskumen diren zerbitzuak zuzenean kudeatzeko, eta arestian aipatutako hitzarmenen arabera, sozietate hori izango da araudi honetako xede diren zerbitzuak zuzenean emango dituena.

......

Artikulu honi dagokionez, 4. artikulu horretako bigarren paragrafoa ezabatzea proposatzen da.

7. artikuluak, 7. paragrafoan, hau xedatzen du:

Tarifaren kudeaketa, likidazioa eta kobrantza Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk, zerbitzuaren kudeaketa zuzenaz arduratzen den sozietateak egingo du, Kontsortzioaren berezko bitarteko gisa. Gipuzkoako Hondakinen

Artículo. 4. Prestación del Servicio (párrafo 2º):

......

Dado que, previo el correspondiente expediente de municipalización, aprobado por la Asamblea General del Consorcio, se constituyó la sociedad anónima unipersonal, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. como una forma de gestión directa de los servicios competencia del Consorcio, será ésta, según los acuerdos señalados, quien presta directamente los servicios objeto de este reglamento.

......

En lo referente a este artículo se propone suprimir este segundo párrafo del artículo 4 aquí citado.

Artículo 7, en su párrafo 7 establece:

La gestión, liquidación y cobro de la tarifa las realizará la sociedad de gestión directa del servicio, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU como medio propio del Consorcio. La recaudación ejecutiva se realizará por el Consorcio de

Kontsortzioak egingo du diru-bilketa exekutiboa.

Residuos de Gipuzkoa.

Artikulu honetan kudeaketa zuzenari egiten zaion erreferentzia ezabatzea proposatzen da; eta beraz, paragrafoa horrela geratuko litzateke idatzita:

En lo referente a este artículo se propone suprimir la referencia a la gestión directa, quedando el párrafo con la siguiente redacción:

"Tarifaren kudeaketa, likidazioa eta kobrantza Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk, zerbitzuaren kudeaketa zuzenaz arduratzen den sozietateak egingo du, Kontsortzioaren berezko bitarteko gisa. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak egingo du diru-bilketa exekutiboa".

"La gestión, liquidación y cobro de las tarifas las realizará la sociedad de gestión directa del servicio Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU como medio propio del Consorcio. La recaudación ejecutiva se realizará por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa".

Hernanin, 2016ko martxoaren 17an

Sin. / Fdo. Jose Ignacio Asensio Bazterra

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.ren Administrazio Kontseiluko Presidentea